



GIZARTE ZERBITZUETAKO ARRETA ZENTROEN JARDUKETA PLANA GRIPE PANDEMIAREN AURREAN

Aurkibidea

I. GRIPE PANDEMIA

- 1.- Egungo egoera
- 2.- Zergatik da arriskua gripe-pandemia gizarte-zerbitzuetako zentroentzat?

II. ATENDITZEN DITUGUN PERTSONEN OSASUNA BABESTU

III. LANGILEEN OSASUNA BABESTU

IV. ATENTZIO ESTRATEGIAK GIZARTE ZERBITZUETAKO ZENTROETAN

ZERBITZUAK PERTSONEI ZIURTATZEKO IRADOKIZUNAK PANDEMIAREN ERAGINA DELA ETA

- ALDUNDIA
- UDALAK
- ZENTROAK (Egoitzak, Eguneko Zentroak, Etxebizitzak)

I. ERANSKINA –A GRIPEAREN ONDORIOEN TRATAMENDU EKONOMIKOA EGOITZEN ETA EGUNEKO ZENTROEN BALIABIDEETAN (sektore guztietan ezargarriak)

II. ERANSKINA – BESTE BALIABIDE ERABILGARRI BATZUK



I. GRIPE PANDEMIA

Gripea zer den. A/H1N1 gripe birus berria

Gaixotasun infekziosoa da eta, hiru mota hauetako birusen batek sortua: A, B eta C. Hiru mota hauetan ohikoenak lehenengo biak dira.

Gaixotasunaren sintomak kutsapena gertatu ondorengo bosgarren egunean edo hasten dira agertzen eta ohikoenak honako hauek dira: sukar altua, buruko eta muskuluetako mina, ahulezia eta ondoez orokorra. Batzuetan sudurreko kongestioa, eztarriko mina eta eztula ere agertzen dira. Gaixotasun honek edozein pertsonari erasan diezaioke. Halere, badira kolektibo batzuk gripearen ondorioak era larriagoan jasaten dituztenak. Adineko pertsonak dira eta beste osasun arazoren batzuk dauzkatenak (diabetes, BGBK, giltzurrunetako edo gibekeko gaixotasuna, etab.). Kasu hauetan gaixotasuna konplika daiteke eta horregatik, guztiz komenigarria da arriskudun kolektibo honek gripearen aurkako txertoa hartzea.

Gripea oso gaixotasun kutsakorra da eta airearen eta listu tanta txikien bidez zabaltzen da. Gripe kasuak, batez ere, udazkenaren amaieran eta neguaren hasieran agertzen dira.

Gripearen diagnostikoa klinikoa eta epidemiologikoa da, eta ez da gomendatzen antibiotikoak erabiltzea birusari aurre egiteko. Gripea edukiz gero, egokiena hainbat neurri lagungarri hartzea da, adibidez, antitermikoak erabiltzea, ohean egotea eta ongi hidratatzea.

Gripearen prebentzioari dagokionez, egokiena eta eraginkorrena txertatzea da. Esan beharra dago, gripearen aurkako txertoak ez duela kasu guztietan gaixotasuna harrapatzea eragozten, baina harrapatuta ere, arinagoa izaten da eta konplikaziorik gabea. Txertoak ez dauka ia batere kontraindikaziorik, oilo arrautzekiko hipersentikortasuna salbu, eta eman dakieke emakume haurdunei ere. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak urtero egiten du kanpaina bat arrisku taldeei zuzendua, irailean eta urrian.

A Gripe berria

Oraingo gripe hau (hasiera batean txerri gripea edota "gripe berria" deitu zitzaiena) gripe birusaren azpitipo berri batek A/H1N1 eragiten du, eta hain zuzen berria delako ez gaude aurre egiteko immunizaturik; beraz, pertsona asko egongo dira gripe hau harrapatzeko arriskuan.

Aitzitik, pertsona asko daude immunizatuak urtaroko gripearen (urtero batez ere neguan agertu ohi den gripearen) birusen aurrean, eta horregatik, infektatzeko arriskuan dagoen populazioa txikiagoa izaten da.

2. Zergatik da arriskua gizarte-zerbitzuetako zentroentzat gripe-pandemia bat?

Gizarte Zerbitzuetako zentroetan atenditzen diren pertsona asko oso gaixobera izan ohi delako.



ANTIBIRALEKIN TRATATZEKO ARRISKU TALDEAK

- ? Emakume haurdunak
- ? Asma moderatu-larri iraunkorra
- ? EPOC moderatu-larria
- ? I. tipoko diabetesa
- ? II. tipoko diabetesa tratamendu farmakologikoarekin
- ? Gaixotasun kroniko kardiobaskularrak (hipertentsioa izan ezik)
- Giltzurruneko gutxiagotasun moderatu-larria
- ? Anemia moderatu-larria
- ? Asplenia
- ? Gibelego gaixotasun aurreratua
- ? Gaixotasun neuromuskular larriak
- ? Paziente immunodepresiboak, trasplantedunak, immunosupresoreekin tratatuak edo VIHk afektatuak.
- ? Haurrak eta nerabeak, 18 urtez azpikoak, azido azetil salizilikoarekin tratamendu luzeak hartzen ari direnak, gipearen Reye sindromea gara dezaketelako.
- ? Obesitate morbidoa: gorputz-masaren indizea 40ren parekoa edo handiagoa

ZER EGIN GRIPE A/H1N1 KASUETAN Osasun Saila/OSAKIDETZA

Gripe pandemikoaren eta urtarokoaren arteko desberdintasunak

GRIPE EPIDEMIKOA	GRIPE PANDEMIKOA
Urtero agertzen da Udazken-Neguan	30-40 urtero agertzen da alde-alde, urteko edozein garaitan
Biztanleriaren % 10-15eraino afektatzen du	Pertsona kopuru handiagoa afektatzen du
500.000-1.000.000 heriotza eragiten ditu urtero munduan	Uste da gripe epidemikoak baino heriotza gehiago eragingo dituela, barreiatze-gaitasunaren, biztanleria-talde afektatuenen eta eragingo dituen sintomen larritasunaren arabera
Heriotzak 65 urtetik gorakoengan eta gaixo kronikoengan kontzentratzen dira	Afektazio handieneko taldeek ez dute zertan izan urtaroko gripeak afektatutako berak. Hiltze-arriskua ez dago hain mugatua
Bada txerto bat urtero aldatuz doana, urte bakoitzean zirkulatzen ari diren birusen ezaugarriak zein diren	Ez da izaten txertorik pandemiaren hasieran



II. ATENDITZEN DITUGUN PERTSONEN OSASUNA BABESTU

Osasun Saila/OSAKIDETZAK ezarritako arrisku-taldeen definizioaren arabera, funtsean egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan atenditu ohi den biztanleria gehiena arrisku-taldetzat har dezakegu eta, horregatik, Osasun Saila/OSAKIDETZatik protokoloz ezarritako prebentzio-neurriak bete beharko lirateke.

Egoitza-zentroetan, gaixotasunaren fokua sar liteke langileen bitartez edo zentrorako egunero egiten diren bisiten bitartez, eta, horregatik, arreta berezia izan beharko da ildo horretan eta zehatz-mehatz bete jarduketa-protokoloan ezarritako gomendioak A/H1N1 birus berriaren gripe-kasuen aurrean.

III. LANGILEEN OSASUNA BABESTU

- Gripe-pandemia gripe-birus berri batek eragindako gaixotasun bat agertzea da, mundu osoan zehar barreiatzen dena. Birusa pertsonentzat berria delako, ia denak hura harrapatzeko arriskuan egongo dira.
- Gehienetan gripea gaixotasun komuntzat hartu behar da, lanaldian eragile biologikoen eraginpean egoteagatik arrisku espezifikoak dituzten lanpostuen salbuespenarekin.
- Lanpostuetan gripea hartzeko eta transmititzeko arriskutik langileak babesteko, kontuan hartuko dira A/H1N1 birus berriaren ondoriozko gripe kasuetarako onartua dagoen jarduketa-protokoloak ematen dituen jarraibideak (Pandemia Alertaren 6. faserako jarduketa).
- Ildo horretatik, bereziki aipatzekoak dira langileentzako formazio eta informazio ekintzak. hauek landu behar dira:
 - o **Zer babes-neurri** jarri behar diren abian ezaugarri hauek dituen pandemia baten aurrean.
 - o Zer jarraibide segitu behar diren **gaixotasunaren sintomak agertzean**.
 - o **Lana nola antolatu behar den** gripearen eraginpeko langileen kopurua murriztu dadin.
 - o Bereziki, **zer lan-murrizketa** gerta litezkeen aurreikusitako:
 - ☞ Gripearekiko bereziki sentiberak diren langileak (arrisku-taldeak).
 - ☞ Haurdun edo edoskitze-aroan dauden langileak.
 - ☞ Langile immunodepresiboak.
 - o Zer neurri hartu behar diren **higiene pertsonala** zaintzeko.



IV. ATENTZIO ESTRATEGIAK GIZARTE ZERBITZUETAKO ZENTROETAN

Atenditzen dugun biztanleria dela-eta Gaixotasunaren Kontrol Estrategiak betetzeaz gainera, pandemian zehar zerbitzu sozialetatik atunduriko pertsonen Atentziorako Estrategiak ere ezarri behar ditugu.

EGINKIZUNEN BANAKETA, ZERBITZUAK PERTSONEI ZIURTATZEKO PANDEMIAREN ERAGINA DELA ETA

ALDUNDIA

- Gizarte-zerbitzuen sarearentzako informazioa landu eta eman, larrialdi-kasuan hartu beharreko neurri, plan eta protokoloei buruz.
- Webgunean eseki larrialdi-neurriei buruzko informazioa.
- Lan Zuzendaritzari planteatu larrialdi-egoeraren aurreikuspenekin bat datorren denboraldirako ezarritako grebek atentzio egoera larriagotu egin dezaketela egoitza-zentroetan.
- Osasun Saila/OSAKIDETZArekin koordinatu, txertoen egutegia ezartzeko orduan gizarte-zerbitzuetako langileak lehentasuneko langileria kontsideratzeari begira .
- Osasun Saila/OSAKIDETZAri planteatu egoitza zentroek -bai adineko pertsonenak, bai mendeko pertsonenak- "osasun-zentro" kontsiderazioa izateko aukera, kutsapenak prebenitzeko beharrezko material sanitarioa hornitzeari begira.
- Udalekin koordinatu, pandemiak afektatuz gero jarraitu beharreko estrategiei begira.
- Boluntario-taldeen balizko esku-hartzea koordinatu, zentroetako profesionalei laguntzeari begira.
- Kontzientziatu biztanleria orokorra hiritarren esku-hartzearen beharraz eta laguntza-beharra duten eta pandemiaren ondorioz laguntza profesionalik gabe geratu diren pertsonetara elkartasunaz.
- Landu atentzio-estrategiak eta gomendioak foru-eskumeneko esparruetako zentroetarako, hala nola:
 - EGOITZA ZENTROAK
 - EGUNEKO ZENTROAK
 - Eta abar.
- Ziurtatu zentroek funtsezko zereginak betetzea.



UDALAK

- Aurreikusi zerbitzuen antolakuntza, beren oinarrizko zerbitzuetako langileriaren lan-bajen kasuetarako.
- **ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA-**
 - o Aurreikusi gaixotasun-bajen kasuan zerbitzua atenditzen duten pertsonen beharrezko ordezkapenak.
 - o Bajak estaltzeko zailtasunak daudenean, zerbitzu-orduak berrantolatu/murriztu zainketa pertsonalak lehenetsiz.
 - o Aurreko egoeraren errefortzu gisa, edo zaintzaileen bajak estaltzeko zailtasunak izango balira, familia-laguntzako zirkuluak sortu ELZan atendituak diren pertsonen laguntzeko; eta halakorik sortzea ezinezkoa den kasuetan, laguntzako solidarioko formulak bilatu aipaturiko pertsonak babesik gabe edo gutxieneko laguntzarik gabe ez geratzeko.
 - o Telefono bidezko jarraipen-pautak ezarri babes falta edo laguntza beharra duten kasuak detektatzeko.
 - o Etxeko laguntza zerbitzua duten pertsonen familiaren edo bizilagunen laguntzarik, elkartasunik edota babesik gabe geratuko balira, Udalak, Gizarte Politikako Departamentuaren bidez adineko pertsonentzako egoitza batean aldi baterako egonaldi bat kudeatu ahal izango du protokolo honetako I. eranskinean xedatutakoaren arabera (GRIPEAREN ONDORIOEN TRATAMENDU EKONOMIKOA EGOITZA ETA EGUNEKO ZENTROEN BALIABIDEETAN).

GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROEK JARRAITU BEHARREKO GOMENDIOAK PANDEMIAK AFEKTATUZ GERO.-

MAILA OROKORREAN

Gaixotasunaren prebentzio- eta tratamendu-neurriak Osasun Saila/OSAKIDETZA ko protokoloetan ezarritakoak izango dira beti.

Zentroak erabaki behar du zentroaren zuzendaritza koordinaturik edukitzeko era, arduradunengan gaixotasunak izan lezakeen eraginaren aurreikuspen-neurri bezala. Horretarako Krisi Lantalde / Koordinazio Batzorde bat sor dezake zentroan eta kideetako bakoitzaren erantzukizunak eta funtzioak zein diren zehaztu.

Batzorde horretan honako hauek egon daitezke:

- Zuzendaria
- Medikua
- Erizaina
- Laguntzaileen Gainbegiratzailea
- Gizarte Langilea

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

- Erosketa-arduraduna
- Psikologoa



KRISI EDO KOORDINAZIO BATZORDEKO KIDEEN ARTEAN ERABAKI BEHARREKO FUNTZIOAK

Zuzendaritza:

- Jakinarazi Osasun Saila/OSAKIDETZAk ezarritako neurriak.
- Zentroko langileak koordinatu hartuko diren neurrien ondorioz.
- Gaixotasun-bajen ondorioz gerta daitekeen plantilla murriztearen aurrean, atentzio-estrategiak plantilla osoari banan-banan komunikatu eta betearazi.
- Osasun Saila/OSAKIDETZAekin komunikatuta egon.
- Zentroko langileen gaixotasunaren ondoriozko bajen eraginez beharrezkoak izan daitezkeen ordezkapenak aurreikusi. Eguneraturik mantendu ordezkapen-kontaktuen fitxak.
- Jakinarazi eta ikusteko moduko lekuan ezarri hartu diren neurriak, nola sanitarioak hala antolakuntzakoak.
- Funtsezko atazen antolakuntza ezarri plantillak murriztearen kasuan.

Zentroko talde sanitarioa: medikua/erizaina

- Jarraitu jarduketa-protokolo sanitarioak eta, halakorik balego, ospitalera bideratutako kasuak.
- Erabaki bakartze-gelak edo guneak sortu behar al diren.
- Gripearren eraginaren ondorioz jarraitu beharreko protokolo sanitarioak plantilla osoari banan-banan komunikatu eta betearazi.
- Erabaki zeintzuk izango diren neurri higienikoak infekzioaren kontrolerako.
- Ziurtatu langileek badutela mediku kontsultetara eta aholkuetara iristeko modua.
- Aurreikusi zurrumurruen eta/edo informazio erratuaren ondorioz enplegatuen artean gerta daitezkeen beldur- eta antsietate-egoerak, eta behar izanez gero komunikazio-neurriak ezarri.
- Aurreikusi infekzioaren kontrolerako behar adina material-zuzkidura edukitzea, Osasun Saila/OSAKIDETZAren Protokoloarekin bat etorritz.

Gizarte Langilea:

- Familiekin komunikaturik egon pandemia dela-eta: atenditutako pertsoekin eta senideekin berekin hartutako neurriak jakinarazi eta jarraipena egin.
- Erosketa-arduradunekin batera, zentroko jardueretarako behar diren janari nahiz bestelako hornigaien erosketak aurreikusi.
- Behar izanez gero, profesionalei laguntzeko boluntarioek egin ditzaketan atazak ezarri.



Laguntzaileen gainbegiratzailerak:

- Garbiketako higie-neurri bereziak ezarri eta zorrotzu.
- Gaixoentzako guneak atenditzeko txandak eta laguntzaileak ezarri.

Sukaldea.

- Arretaz zaindu Osasun Saila/OSAKIDETZAREN protokoloek ezarritako prebentzio-neurriak.
- Menu bereziak aurreikusi gaixo afektatuentzat.
- Erosketa arduradunekin koordinatu gripeak afektatutakoentzako berariazko janari-produktuen aurreikuspena.

Erosketak:

- Hornitzaileak zehaztu
- Ondoko gaiak erostea eta biltegiatzea aurreikusi:
 - Janariak
 - Garbiketa-gaiak
 - Farmazia-gaiak
 - Oxigenoa (Osakidetza)
 - Eta abar.

Mantenimendua:

- Gaixok bakartu behar izanez gero, gelak prestatzeari lehentasuna eman.
- Hondakinak gai biologiko kutsatzaile gisa tratatu.



JARDUKETA MAILAK, AH1N1 GRIPEAREN INTZIDENTZIA MAILAREN ARABERA

- **1. Maila:** pandemiaren intzidentzia urtaroko gripearen antzekoa denean.
- **2. Maila:** A gripearen ondoriozko gaixotasun-indizeak antolakuntza-neurri bereziak hartzera behartzen duenean.
- **3. Maila:** egoera puntu kritiko batera iristen denean, zerbitzuak atenditzeko langileria ordezkatzeko zailtasunak daudelako eta laguntza solidarrora jo behar da edo beste neurritara.



EGOITZA ZENTROENTZAKO NEURRI BEREZIAK:

Neurri orokorrez gainera, beharrezkoa izango da:

1. Maila - Gaixotasunaren intzidentzia urtaroko gripearen antzeko proportzioan gertatzen denean.

- Prebentzio-neurriak martxan jarri.
- Ospitaleratu beharrik ez duten egoiliar afektatuak bakartzeko aukerak aurreikusi.
- Zentroa edo jarduerak ohi bezala antolatu.
- Gaixoak ahalik eta profesional kopuru txikienak atendituak izateko eran antolatu langileak.

2. Maila – Egoiliarren artean baina, batez ere, langileen artean gaixotasunaren intzidentzia esanguratsua denean.

- Egoiliar gaixoen kopurua nabarmen gehitzen bada, horiek egoitza-zentroko arlo/sektore edo modulu batera biltzeko aukera aztertu
- Honelako zentroetan gaixotasunaz kutsatzeko bidea langileak berak edo egoiliarren bisitariak izan daitezkeenez, beharrezkoa izanez gero arauak ezarri bisitei buruz eta, azken batean, murriztapenak erabaki.
- Ordezkapen-langileen poltsa egunean eduki.
- Gaixotasunaren intzidentzia gero eta handiagoa bada langileen artean, egunean-egunean antolatu eta egokitu funtsezko atazak, kontuan hartuz itxi ezin diren zentroak direla.
- Egoitza-zentroetan bermatu beharreko funtsezko atazak erabaki, oinarrizko atentzio mailen zerrenden arabera.

3. Maila - Langile gaixoen kopurua maila kritikoetara iristen denean.

- Egoiliar gaixoen kopurua nabarmen gehitzen bada, egoiliar ez gaixoak egoitza-zentroko arlo/sektore edo modulu batera biltzeko aukera aztertu.
- Behar adina langilerekin ez bada, ordezkapenen bidea agortu bada eta kanpoko langileak hartzeko inolako aukerarik ez denean, boluntarioekin eta/edo egoiliarren senideekin kontaktzeko aukera aztertu, zentroko profesionalei zeregin ez kualifikatuetan laguntzeko (Nagusilan, DYA, Gurutze Gorria, tokian tokiko erakundeak...)
- Egunean-egunean antolatu eta egokitu funtsezko atazak, kontuan hartuz itxi ezin diren zentroak direla.
- Egoitza-zentroetan bermatu beharreko funtsezko atazak erabaki, oinarrizko atentzio mailen zerrenden arabera.
- Aparteko egoera baten kasuan, indarreko legerian aurreikusitako neurri bereziak hartuko dira.



OINARRIZKO ATENTZIO MAILEN ZERRENDA EGOITZETAN

- Egoiliar guztiak jaikitzea, medikuaren aginduz ohean egon behar dutenak izan ezik.
- Gosaria, bazkaria eta afaria banatzea ordutegi egokian, otorduak ordu-tarte txiki batean bildu gabe.
- Sendagaiak medikuak agindutako orduetan ematea.
- Pixoihalak aldatzea zentroak ezarritako pauten arabera, medikuak agindutako kasuetan izan ezik.
- Kontinenteen kasuetan, komunera laguntzea ezarritako pauten arabera.
- Postura-aldaketa: agindutako guztiak; eta mugatu behar izango balira, lehentasunak beteko lirateke, sanitarioen aginduak jarraituz.
- Hidratazioa, agindutakoa.
- Higienea eta bainua: gutxienez astero dutxa bat, eta gainerako higie egokia.
- Ohiko orduan lotaratzea, bestelako agindurik ezean.
- Arlo sanitarioan arreta berezia eskainiko zaie egoiliarren larruazalen egoerari, baita dituzten ultzeren bilakaerari eta ultzera berriak agertzeari ere.
- Zentroak antolakuntza bat ezarri beharko du, idatziz, egoiliarren oinarriko atentzio-beharrak estaltzeko atazak izendatuz. Antolakuntza hori egunean-egunean aldatu ahal izango da.

Aurreikusiz intzidentzia desberdina izan daitekeela zentro batetik bestera, maila hauen ezarpena banaka-banaka esleituko litzaioke zentro edo zerbitzu bakoitzari. Soluzio alternatiboen bilaketa zentroaren hurbileko ingurunean egiteko ahalegina egingo da (eskualde eta azpieskualde mailan).



EGUNEKO ZENTROENTZAKO NEURRI BEREZIAK

Neurri orokorrez gainera, hau egin beharko da:

- Sukarra >38°C den eta gutxienez arnasketa-infekzio akutuzko bi zeinu edo sintoma (eztula, errinorea, arnasa hartzeko zailtasuna, zefalea, eztarriko mina, mialgia, ondoez orokorra) dauden kasuetan **erabiltzailea ez da Eguneko Zentrora joango.**

1 MAILA- Gaixotasunaren intzidentzia urtaroko gripearen antzeko proportzioan gertatzen denean.

- Oinarrizko prebentzio- eta higiene-neurriak hartu.
- Zentroa edo jarduerak ohi bezala antolatu.
- Txoferra eta/edo garraio-laguntzailea gaixotzen diren kasurako, aurreikusi eta eguneraturik mantendu ordezkapenatarako kontaktuak. Ordezkapen-aukerarik ez bada, komunikazioa izan familiekin, nahi badute beren kabuz lekualdaketa egin dezaten.
- Laguntzaileen gaixotasunaren kasuan, aurreikusi eta eguneraturik mantendu ordezkapenatarako kontaktuak.

2 MAILA.- Egoiliarren artean baina, batez ere, langileen artean gaixotasunaren intzidentzia esanguratsua denean.

- Txoferra eta/edo garraio-laguntzailea gaixotzen diren kasurako, aurreikusi eta eguneraturik mantendu ordezkapenatarako kontaktuak. Ordezkapen-aukerarik ez bada, komunikazioa izan familiekin, nahi badute beren kabuz lekualdaketa egin dezaten.
- Gaixotasunaren intzidentzia langileen artean gehitzen bada, antolatu eta egokitu egunean-egunean funtsezko atazak.
- Eguneko zentroetan bermatu beharreko funtsezko atazak erabaki, oinarrizko atentzio mailen zerrenden arabera.

3 MAILA.- Langile gaixoen kopurua maila kritikoetara iristen denean.

- Egunean-egunean antolatu eta egokitu funtsezko atazak.
- Gaixotasunaren ondoriozko bajak langileen %60ra iristen ez badira, atenditutako kopuruaren arabera, zentroko zuzendaritzak planteatu beharko du boluntarioak hartzeko aukera laguntza ez kualifikatuko zereginetan, kontuan hartuta erabiltzaileen familia-ingurunean sortuko liratekeen eragozpenak eta atentzio-neurriak oinarrizko gizarte-zerbitzuekin koordinatu beharra .
- Baldin eta atenditzeko dauden langileen kopurua = %60koa bada, zerbitzua IXTEKO edo aldi baterako eteteko aukera planteatu ahal izango zaio Gizarte Politikako Departamentuaren Ikuskaritza Zerbitzuari.



OINARRIZKO ATENTZIO MAILEN ZERRENDA EGUNEKO
ZENTROETAN

- ✍ Zentrora datozen erabiltzaile guztiak hartzea.
- ✍ Janari eta hidratazio pautatua ematea zentroan dauden bitartean.
- ✍ Sendagaiak era pautatuan ematea zentroan dauden bitartean.
- ✍ Pixoihalak aldatzea eta komunera eramatea ezarritako pautaren arabera.
- ✍ Jarduerak burutzea.
- ✍ Txukunketa osoa larrialdi-kasuetan.
- ✍ Erabiltzaileak etxera itzultzeko prestatu.



MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ETXEBIZITZENTZAKO ETA ADINGABEEN ZENTROENTZAKO NEURRI BEREZIAK.-

- Erabiltzailea bera gaixo badago edo egunean zehar atenditua dagoen ikastetxea, eguneko zentroa edo lan-integratiokoa ixtekoa bada, etxebizitza edo zentroetan jarraibide hauek beteko dira:

- Langile kopurua berraztertu, erabiltzailea egun osoan etxebizitzan edo zentroan bertan egongo den aurreikuspena eginez.
- Ordezkapen-zerrendak egunean mantendu.
- Etxebizitzaren antolakuntza birplanteatu asteburuetan eta jaiegunetan bezala.
- Egoerarik larrienean profesional gabezia ez badago osatzerik eta zentroaren tamainak ez badu erabiltzaile guztiak bertan mantentzeko aukerarik ematen, erabiltzaileak beste norabait biltzeko aukera aztertuko da (aterpetxeren bat xede horretarako erabiliz-edo).

ETXERIK EZ DUTEN TALDEENTZAT.

- Gaixorik dagoen “Etxegabe” bat antzematen denean Osakidetzako sarera bideratu behar zaio eta dauden protokoloak jarraituz jardungo da.



I. ERANSKINA – A GRIPEAREN ONDORIOEN TRATAMENDU EKONOMIKOA EGOITZA ETA EGUNEKO ZENTROEN BALIABIDEETAN (sektore guztietan ezargarriak)

1.- Araubide ekonomikoa

Egoitza zentroetan edo etxebizitzetan eta eguneko zentroetan emandako zerbitzuen araubide ekonomikoa -edozein dela ere atentzio-modalitate edo sektorea- egonaldi/plaza/egun moduluan oinarritzen da.

Etxebizitza

Egoitza zentroetako edo etxebizitzetako plazek –ondoren aipatzen den egoera bakoitzaren arabera- honako eskubide ekonomikoak sortuko dituzte zerbitzua kudeatzen duen entitatearen alde:

Plaza betea

Pertsona bati esleitutako plaza da, egoitzan edo etxebizitzan sartzen den unetik aurrera. Kobraketa-eskubide bat sortuko du, plazako ekarpenari dagokiona hitzarmeneko III. zk. eranskinean jasota dagoenaren arabera edo, bere kasuan, onarturiko tarifa handien arabera (sektorea zein den).

Plaza erreserbatua

Plaza esleitua eta betegabea da, oporraldi, ospitaleratze edo antzeko beste zirkunstantziaren bat dela eta. Kobraketa-eskubidea sortuko du plazako ekarpenaren %75ari dagokiona hitzarmeneko III. zk. eranskinean jasota dagoenaren arabera edo, bere kasuan, onarturiko tarifa handien arabera (sektorea zein den).

Plaza betegabea

Ezein pertsona onuraduni esleitu gabeko plaza. Kobraketa-eskubidea sortuko du plazako ekarpenaren %75ari dagokiona hitzarmeneko III. zk. eranskinean jasota dagoenaren arabera edo, bere kasuan, onarturiko tarifa handien arabera (sektorea zein den).

Eguneko Zentroa

Eguneko zentroetako plazek –ondoren aipatzen den egoera bakoitzaren arabera- honako eskubide ekonomikoak sortuko dituzte zerbitzua kudeatzen duen entitatearen alde:

Plaza betea

Pertsona bati esleitutako plaza da, zerbitzuan sartzen den unetik aurrera. Kobraketa-eskubidea sortuko du, III. Eranskinean edo, bere kasuan, onarturiko tarifa handien baturaren parekoa.

Plaza erreserbatua

Plaza esleitua eta betegabea da. Plaza-erreserba ezarriko da zazpigarren egunetik hasita gehienez hiru hilabetean. Horrela, zentrori ez etorritako lehendabiziko sei egunetan, nola erabiltzaileari hala Gizarte Politikako Departamentuari, beren ekarpenaren %100 fakturatuko zaie, eta zazpigarren egunetik aurrera %75.

Hala eta guztiz ere, ospitaleratzearen edo oporraldi programatuen ondoriozko plaza-erreserba lehen egunetik beretik aplikatu ahal izango da, gutxienez astebeteko aurrerapenaz jakinarazten bada.



Eguneko zentroen kasuan ez da aurreikusten plaza betegabearen kontzeptua.

2.- Egoera hipotetikoak A gripearekin

Etxebizitza/egoitza

- a) A gripea erabiltzaileek dutenean

Ezinezkoa da erabiltzaileek egoitza-baliabidea abandonatzea, beren etxebizitza baitute; irteera ospitaleratzeko bada plaza-erreserbaren kontzeptuan ordainduko da.

Baldin eta Departamentuak erabakitzen badu denboraldi batean, edozein arrazoiengatik (adibidez, egoiliar kopuru handi bat afektatua dagoelako) egoiliar berriak alta bezala zentrorra ez bidaltzea, orduan plaza betegabearen kontzeptua jarriko litzateke abian.

- b) A gripea langileek dutenean

Zentroa aldi baterako ixtea edo zerbitzua etetea eta, horrenbestez, erabiltzaileak beste zentro batera aldatzea bakar-bakarrik eskatu eta planteatu ahal izango da baldin eta zentroa ez bada gauza -ez bere plantillarekin, ez kanpo-kontratuekin, ez eta herritarren elkartasunarekin- Departamentuak funtsezkotzat jotzen dituen zerbitzuak bermatzeko eta aukera baldin badago erabiltzaileak beste zentroen batera eramateko.

Eguneko Zentroak

- c) A gripea erabiltzaileek dutenean

Erabiltzailea zentrorra joaten ez bada plaza-erreserbaren kontzeptuan ordainduko da (nola erabiltzaileak hala administrazioak).

Saihestu egingo da A gripearearen sintomak dituzten erabiltzaileak zentrorra joatea, eta plaza-erreserba bezala tratatuko da.

Baldin eta Departamentuak erabakitzen badu, edozein arrazoiengatik, denboraldi baterako erabiltzaile berriak ez bidaltzea, edota halakorik ez badago, ez da sortuko eskubiderik ezein konpentsazio ekonomikorako.

- d) A gripea langileek dutenean

Zentroa ixtea eta, hortaz, erabiltzaileak beste zentro batera eramatea bakar-bakarrik planteatuko da baldin eta zentroa ez bada gauza -ez bere plantillarekin, ez kanpo-kontratuekin, ez eta herritarren elkartasunarekin- Departamentuak funtsezkotzat jotzen dituen zerbitzuak bermatzeko.

Halakoetan plaza bete gisa ordainduko lukete, bai Departamentuak eta bai pertsona erabiltzaileak.

Lekualdaketarako aukerarik ez badago eta zentroak ezin badu bermatu gutxieneko langileria, zentroa aldi baterako itxiko da eta ez da inolako obligaziorik sortuko, ez erabiltzaileentzat eta ez Departamentuarentzat.

Eguneko zentroko garraioa ez bada egiten, ez da ordainduko